

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Arrieta*



Aurkibidea

# Udalerria: Arrieta

## Sarrera



Bizkaiko iparraldean dagoen udalerrri txiki eta euskalduna da, Mungialdean kokatutakoa. Sollube mendiaren magalean dago eta Busturialdearekin muga zuzena du; izan ere, udalerrriaren %10 Urdaibaiko lurraldean dago. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Busturia eta Meñaka; hegoaldean, Morga; ekialdean, Errigoiti; eta, mendebaldean, Fruiz. Arrietako auzoak lau entitartetan banatzen dira: Libao erdialdean, Agirre iparraldean, Olatxua-Olabarri hegoaldean eta Jainko-Oleaga ekialdean. Ekonomiari dagokionez, nekazaritza eta abere eta baso ustiapenak du garrantzi gehien.

- **Biztanleak:** 510
- **Euskaldunak:** %81,87

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **19**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **19**

## Proiektuak

- Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### Felipe Andikoetxea Uriarte (1925)



1925ean jaio zen Mungiako Aldeko baserrian. Hau Mungiako udalerraren barne zegoen arren, eskolara eta eguneroko bizitza egitera Fruizera joaten ziren. Aita Aldekon jaiotako matarifea izan zen eta ama alboko baserriko etxeoandrea. Lau neba-arrebatatik hirugarrena izan zen eta 13 urterekin, Arrietako baserri batera morroi bezala eraman zuten. Morroi lanetan ibili zen 16 urterekin Fruizeko arotzeri bateko laguntzaile sartu zen arte. Gerra garaian, Galdamesera bidali zuten eta handik etxera bueltatu zenean, 28 urterekin, Arrietako [Rosa Orbe](#)ekin ezkondu eta bertara bizitzera joan ziren. Momentuko egoera zela-eta, Washingtonera (AEB) joan behar izan zuen artzain lanetan; barre artean, 3000 ardi jagon behar izan zituela kontatu zigun. Hamar urte igaro zituen bertan eta etxera gutxitan bueltatu ahal izan zen arren, familiarekin eta izan zituen bi seme-alabekin kontaktua mantentzen saiatu zen. Bere emazteagaz batera egin genion elkarrizketa.

### Luis Asla Altonaga (1925)



Arrietako Jainko auzoko Momotxo baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Fruizkoa. Errepublikara garaiko euskarazko eskolan ikasi zuen. 10-11 urte ingururekin, eskola utzi eta baserriko lanei ekin zien, eta ordudunik horretan ibili izan zen. Gerra gertutik bizi izan zuen burdinazko gerrikoko behatokia beraien etxean egon zelako; ondorioz, soldadu italiar asko izan zituzten etxean. Berriktarako gizon aproposa, hainbat kontu interesgarri ditu entzun eta ikasteko.

### Alberto Bilbao Ojinaga (1945)



Arrietan jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Agerre baserrian bizi ziren. 11 senidetik 8 irten ziren aurrera. Alberto azkenurrekoa da. Arrietan eta Mungian ibili zen eskolan. Basoan ipini zen pinuak botatzen lanean. 19 urterekin Ameriketara joan zen, 1964an (aurretik bi anaia joan ziren). Ardi-lanetan ibili zen lau urtean, HighLand konpañian, Emmetten (Idaho). Hiru urte "campero" eta bi artzain. Ondoren, zerrategi batean egin zuen lana 32 urtean. 1972an Juanita Zubizarreta (jatorri euskaldunekoa baina Boisen jaioa) ezagutu zuen, emaztea izango zuena; ezkondu eta bi alaba izan zituzten. Fermin anaia ere Ameriketara bizi da eta hari ere elkarrizketa egin genion.

### **Fermin Bilbao Ojinaga (1941)**



Arrietan jaioa, gurasoak bertakoak zituen. Agerre baserrian bizi ziren. Zortzi senide irten ziren aurrera. 14 urterekin Areatzara joan zen, fabrika batean lana egitera. 1961ean Ameriketara joan zen; osaba bat eta anaietako bat bera baino lehen joan ziren (beste anaia eta arreba bat ondoren). Highland konpañian egin zuen lana, Emmet herrian (Idaho), ardiekin: artzain eta "campero". Bost urteren ostean, eraikuntzan hasi zen lanean, Boisen (Californiara eta Arizonara ere joan zen lanetatik). Elisabethekin ezkondu zen eta Nampan bizi izan ziren; sema eta alaba izan zituzten. Boise Cascade kartoi lantegian egin zuen lana 20 urtean, Nampan. Alberto anaia ere Ameriketara bizi da eta elkarrizketatu genuen.

### **Jose Mari Gerekaetxebarria Larrea *Magaltza* (1950)**



Magaltza baserrikoa, guraso biak Arrietakoak zituen. Lau senidetan zaharrena. 1966an aita Ameriketara joan zen artzain eta berak bide bera egin zuen 1972an. Hagerman (Idaho) herrira joan zen, John and Sandy konpainiara lanera; aitarekin egin zuen lana bi urtean, "campero" eta gero arrantxoko lanetan jardun zuen. 1979an Jose Goitiandiaren zabor-bilketa enpresan hasi zen, Ketchumen (Idaho) eta 22 urte igaro zituen bertan. Azken urteak Sun Valleyko eskola bat garbitzen eta mantenimenduan eman ditu. Goodingeko (Idaho) euskal etxeko kidea da, eta sukaldari ibiltzen da bertan, boluntario moduan, Peggy bere emaztearekin batera (ezkoziarra da, gaztetan Ameriketara etorria; bi alaba dituzte).

### **AET-001 Hizlari ezezaguna**

Arrietako emakume baten kontakizunak. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz" liburuaaren prestaketarako.

## Rosa Orbe Urkiaga (1928)

Arrietako Olatxu baserrian jaio zen 1928. urtean. Gurasoak Arrietakoak zituen: ama Lekunberri baserrikoa eta aita Olatxu bertakoa. Bost ahizpatan bigarrena izan zen. Umetatik hasi behar izan zen baserrian beharrean, baina eskolara joan ahal izateko, gurasoek Bermeora eraman zuten bere amaren izeko baten etxera bizitzera. Hamaika urte igaro zituen Bermeon izekorekin bizitzen eta tarte horretan, bertako karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Etxera bueltatu zenean, alboko baserri eta herrietatik, etxeko esnea eta etxeko produktuak saltzen jardun zuen eta horretaz gain, jeneroa azoka ezberdinetara eramaten zuen ere. Handik gutxira, [Felipe Andikoetxea](#) ezagutu eta 25 urterekin ezkondu zen. Senarrak Washingtonera (AEB) joan behar izan zuen artzain moduan lanera eta bertan igaro zituen hamar urteetan, berak baserria mantendu eta izandako bi seme-alabak jagoteaz gain, Olatxuko produktuak saltzen jarraitu zuen. Bere senarrarekin batera egin genion elkarrizketa.



## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Politika

#### 1.1. Arrietan maistra euskaldunak baino ez

- **Hizlaria(k)**: Asla Altonaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AET-004/002
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:01:32. **Bukatu**: 00:03:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Euskara eta politika
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Errepublika garaian orduko bandera altxatzen zuten eskolan euskarazko abesti bat abesten zuten bitartean. Maistra Orozkoko alaba zen, Mari Karmen Ibarrondo; dena egiten zuten euskaraz, ez zuten galarazita izan. Hurrengo maistra be euskalduna izan zen, sekula ez zuten hizkuntza zela-eta arazorik izan. Oinarrizko kontzeptuak baino ez zituzten ikasi. Berak 11 urte zituen gerra hasi zenean. Sasoi hartan ez zen eskolarik izan.

#### Transkripzioa

- Errepublikanueko zera bai... banderie zelan altxetan gendun errepublikanuek eskolan honiño orduentxe eon giñen ta gerrie hasi eurretik. Republikeko bandera altxetan gendun guk eskolan gora.
- A bai?
- Ta kanteu.
- Ta zer kantetan zan ba?
- Kantie oin ahaztute dekot nik, ze kanta eitten gendun be, umetakoa.

- Euskeraz edo erderaz?
- Euskera. Euskaldune euki gendun maistrie be. Orozkoko alabia, Mari Carmen Ibarrondo.
- Euskeraz orduen?
- Euskera. Euskera, gure denporan, euskerie ixen da eskolan dana. Prohibitute egoan dala, baia nik ez dakit, Bilbon eta horretan herri handixetan eongo zan, baia herri txikixetan ez behintzet ez zan egon prohibitute eskolarik, edo euskerarik.
- Orduen maistrie euskaldune?
- Euskaldune. Eta gero, ha gerra ostien edo joan zan, ta gero beste bat etor zan, ta ha be euskeldune. Euskera dana. Erderarik ez bagendun hoba ixengo gendun baia euskara. Leidu ta eskribidu, eta gero erderaz zer esango deuen ez gendun /ezkendun/ jakitten. Ikesi gindun eskolie ixen zan leidu ta eskribidu. Lau reglak: "sumar", "restar", "multiplicar" ta "dividir". Gure batxillerra hori ixen zan, ta gero hortik gora ez da egon gure eskolarik. Hor akabe zan gure eskolia. Bai, bost edo sei urtekin hasi ta hamar-hamaikekin itxi. Eta gero baserrixen biherrien.
- Klaro, baiña hamar-hamaikagaz itxi baiña gero gerrie be etorri zan.
- Bai, gerrie etor zan. Nik zenbat urte auki nittuzen ba? Hamaike urte. "Veinticinco"-an jaiota, "Treinta y seis"-ien gerrie zertu zan ta hamaike urte euki nittuzenien ba gerrie gero etor zan. Ta gero, gerrako denporan eskolie be geldittute egon zan une baten, ta ba gure bizimodue holan joan da aurrera, eskolarik ikesi barik gehixau.
- Baia ba, bizitzeko beste bai.
- Bizitzeko beste... geur arte bixi ixen gara ta ba bizitzeko beste euki dogu / du/. Nahikoa... Batxillerrik ez baia nahiko manejetako beste bai.

## 1.2. Dena egin behar: eskola, dotrina eta baserriko lanak

- **Hizlaria(k)**: Asla Altonaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AET-004/004
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:04:18. **Bukatu**: 00:06:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: 1931an irten zen Errepublika eta orduko bandera izan zuten eskolan. Gerraostean, ostera, nazionala. Eskolan ikuskaritzak izaten zituzten lantzean behin. Liburu bat edo bi izaten zituzten. Eguerdian, bazkalarretik, dotrinara joaten ziren eta arratsaldean baserriko lanetan aritzen ziren.

### Transkripzioa

- Gerrako zera eta hor bittartien... Republikako denporia ixen zan, eta bandera republikanue, oin espaiñola edo altzetan dan moduen, ba altzetan zan orduen bandera republikanue eskolatan. Gero gerra ostien akabe zan ha, eta gero nazionala edo espaiñola oin.
- Klaro ya Francogaz beste bat, beste modu baten.
- Bai, Francokin ba... gero bandera espaiñola haxe zan.
- Eta zuek eskolan eukitten zenduzan, inspekziñoak eta holakoak?
- Bai, inspekziñoak bai. Etorten zan zera... Diputaziñoako zera edo... maisue

edo inspektora nozik nozera. Baia gure inspektoria... inpekziñoa edo zera zer ixeten zan ba! eskolan ukusi haixe zera ta ba ontzat [...] joaten zan eta kitto! Beste zerik ez zan egon hor ba... Horrixek lau reglak, eskribiduten eta zera... leidunten ikesi gindun ta handik gorakorik ezebez. Horrexek ixen da gure denporie.

- Eta libururik edo?

- Liburuek orduen liburu bet edo bi altuena, besterik ez zan egon. "Grado medio" edo esaten jakon liburu bet eta, horrexek egon ziren eskolan. Gero eskolatik geure denporie ixen zan, bederatzietan sartu ta hamabixek, hamabi terdixek han urten, ta dotriñera, elizara. Abadien beste ordu erdi, handik gero etzera, bezkari jan, eta atzera be eskolara. Ta handik urten, ta gero etzien biherra badau, igual ganaduek jagoteko edo zera edo ha eitteko, etzera etor biher. Orduen holan ixen zan gure bizimodue gazte denporakoa. Ongo moduen ez da orduen ixen. Oin hamazortzi urtekin ta liburuekin ta ukusten dotaz nik eskolara. Baia ordukoa ez zan holan, diferente ixen zan.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Dotrina eta abadea sakratuak (AET-004/005)**

Eskola eta dotrina biak ziren garrantzitsuak. Dotrina sakratua zen. Abadea agurtzeko ere txapela kentzen zen errespetu handiz eta berorika tratamendua eman.

### **2. Jainko auzoa (AET-004/009)**

Abadeak meza atzez ematen zuen, aldarera begira. Arrietan beti ezagutu du euskarazko meza. Hiru abade egon ziren: parrokan bi eta Jainko auzoan bat. Eskola be Jainkon zuten, bere gurasoek egindakoa. Dena zen burdibidea.

### **3. Gerraosteko miseria (AET-004/010)**

Etxean egindako abarkak larruzkoak ziren, baina negurako bestelakoak behar izaten ziren. Gerraostean miseria asko egon zen, baserrian ez horrenbeste. Eskeko asko aritzen zen baserrietatik.

### **4. Baserriak akabatu dira (AET-004/012)**

Gaur egun baserrian ez da beharrik egiten. Beraien sasoikoa bai bazen lana ez gaur egungoa. Labrantza behiekin eta idiekin egiten zuten. Eskolatik bueltan aritzen ziren umeak behar horretan.

### **5. Etixerako zein saltzeko lan egin behar (AET-004/013)**

Goldea beti egon da, aparteko makinak 60. hamarkadan-edo agertu ziren. Etixerako zein saltzeko jeneroa izaten zuten, saldu barik ez baitzen dirurik lortzen. Txahalak ere saltzen zituzten.

### **6. Arto lanak (AET-004/015)**

Artajorra aitzurragaz egiten zuten. Prozesua azaltzen du: labean erre, errotara ehotzera eroan... Olatxu eta Olabarri izeneko errotan zituzten inguruan. Ogi

gutxi zegoen, etxean egiten zutena baino ez. Artoaren atal desberdinak gauza desberdinetarako aprobetxatzen ziren.

### **7. Koltxoi motak (AET-004/016)**

Artoaren atal desberdinak gauza desberdinetarako aprobetxatzen ziren, baita koltxoiak egiteko ere. Artilezkoak eta antzarraren lumarekin egindako koltxoiak ere baziren.

### **8. Gari lanak (AET-004/018)**

Garia urri bukaeran edo zemendi (azaroa) hasieran ereiten zen eta garagarrilean (uztaila) jaso. Eskuz jo ostean garantzzen zen. Auzoan zuten garaua garbitzeko makina bat, denentzako bat bakarra. Arrietako lehen kotxea errementariak izan zuen.

### **9. Astorik eta bizikletarik barik lepo gainean (AET-004/020)**

Antzina esne-saltzaileak ez zuten etxerik etxe esnea batzen, hori gerraostetik geroagoko kontua da. Bizikleta eta astoa ere ez zuten denek, askotan zama lepo gainean hartuta garraiatzen zuten. Beraien etxean ez zuten inolako garraiorik, gurdia baino ez. Jendea lantegietan beharrean hasi arte ez zuten autorik erabili. Luisek baserritik atera du bizimodua.

### **10. Harakina etxera bertara ganadua erosten (AET-004/022)**

Ganadua saltzeko harakinak etxera joaten ziren zuzeneko tratua egiteko. Mungiako haraginak joaten ziren hiltegia ere bertan zegoen-eta.

### **11. Arrietako patata (AET-004/024)**

Etxean denetarik ereiten zuten. Hala ere, patata izan da preziatuenetarikoa. Zezeilan (otsaila) ereiten zuten eta maiatzean ateratzen zuten. Gerraostean makina bat patata-tona saldu zuten. Patatarako lur onak daude Arrietan.

### **12. Ilargiaren garrantzia (AET-004/025)**

Soloko lanetarako ilargiari kasu egin behar zaio; horri buruzko azalpenak ematen ditu pasarte honetan. Etxerako den txerria ilbeheran hil behar da, harategirako berdina da arin jaten baita.

### **13. Ermandadea (AET-004/028)**

Baserrian behia-edo galduz gero ermandadea egiten zen horren kargu. Soziedadean izaten zuten elkarte bat da, segurua bezala.

### **14. Behia susara (AET-004/029)**

Behia susara zegoenean, arrarengana hurreratzen zuten; gerora etorri zen intseminazioa.

### **15. Susara, alta, erkera... (AET-004/031)**

Animalia emeak ar eske daudeneko egoera adierazteko, animalia bakoitzak bere izena du: behiak susara, txakurrak eta katuak alta, astoa altari, ardiak erkera... Momentu bakoitzak urteko bere sasoia du.

## 16. Animalia-hotsak (AET-004/033)

Animalia-hotsak: txakurrak ahausi, katuak miao, behiak murrusa, astoak arrantza, txerriak eta zaldia irrintzi, oiloak "karaxie", oilarrak kukurruku, ahuntzak eta ardiak "mekokarrike".

## 17. Lukia ugaritu eta erbia eta ugaraxoa gutxitu (AET-004/034)

Lukia (azeria) lehen ez zen ugaria. Pinua landatzen hasi zenean ugaritu zen lukia eta erbia gutxitu, hauek harrapatzen baitute erbia. Ugaraxoak (igelak) ere asko ikus zitezkeen eta maiatz aldean kantatzen zuten batik-bat.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-06-11*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com